## 07. Oria bailara

1. Sarrera. Oria bailara Gipuzkoako lau eskualdetatik igaro da: Goierria, Tolosaldea, Donostialdeko zati bat eta Urola Kostako beste bat. Oria ibaia 75 kilometro luze da (Gipuzkoako luzeena) eta 816 $km^2$-ko azalerako arroa du (Gipuzkoako handiena). Bailarako paper-lantegiak zirela eta (Segura, Alegia, Leaburu, Zizurkil, Berrobi, Andoain), oso ibai kutsatua izan da, azken urteotan leheneratzen ari bada ere. Biztanlegoa (INE, 2008): 158.000 biztanle, 54 udalerritan banatuak. Euskal Herriko Erdi Aroko 100 hiribilduetatik 6 zeuden bailaran (Segura, Ordizia, Tolosa, Usurbil, Orio eta Zarautz). Bailarako pertsonai garrantzitsuak: Ordiziako Andres Urdaneta XVI. mendeko itsasgizon eta esploratzailea eta Domingo Unanue (1901-1985) arkitektoa, Antonio Zabala (1928-2009) idazle eta euskaltzain tolosarra, JosAnton Artze (1928-) olerkari usurbildarra, Orioko Jorge Oteiza (1908-2003) eskultorea, Benito Lertxundi (1942-) abeslaria eta Anjel Lertxundi (1948-) idazlea.
    - Ingurune fisikoa eta kokaleku historikoak: Aizkorri (1.528 m). Larrunarri edo Txindoki (1.346 m). Murumendi (867 m). Ernio (1.070 m). Uzturre. Adarra (811 m). Buruntza (441 m). Andatza (562 m). Mendizorrotz (415 m). Talaimendi.
    - Azpiegiturak: Bailaratik Done Jakue bidearen Baiona-Burgos adarra pasatzen da, San Adriango tuneletik. Bailaratik —Beasain eta Andoain artean— pasatzen zen Deba ibarretik zetorren XVIII. mendeko Erret Bidea (gutxi gorabehera gaurko N-1 errepidea). AHTa bailaratik pasako da.. Bide zabaleko RENFEren bidea dago Oria bailaran (Donostiako Aldirikoa den Irun-Brinkola; bide hori bikoitza da eta ibilbide luzeagoko RENFEren beste linea batzuekin partekatzen ditu burdinbideak; Beasain-Donostia 1863an egin zen), zein Urola Kostan (Donostiako Aldirikoa den Irun-Zarautz). Urola Kostan, bide estuko Euskotrenen kostaldeko 1K linea dago (*Topo*a). Arriarango urtegia, Beasainen, Goierri gehiengoari ura ematen diona.
2. Goierria:
    - Segura: 1256an hiribildu-titulua eman zion Gaztelako Alfontso X.a *jakintsua*k. Ama Jasokundearen eliza gotikoa (XVI. mendekoa). Sortzez Garbiaren komentua (XVI. mendekoa). Gebara jauregia (XV. mendekoa). Lardizabal jauregi barrokoa (udaletxea). Arrue jauregia (behe-solairua, XVI. mendekoa). Hiribilduaren 5 atariak (Zerain portalea, Jauregi portalea eta Osina portalea dira ikusgarrienak).
    - Beasain: Igartza jauregia (XV. mendekoa). CAF enpresatzarra (46 ha, 3 udalerri). *Manufacturas Olaran* fabrika (Florentzio Mokoroa, 1939).
    - Ordizia: 1256an hiribildu-titulua eman zion Gaztelako Alfontso X.ak. Jasokundeko Andre Mariaren eliza (XIV. Mendekoa). Barrena jauregia (XVII. mendekoa). Azoka (Francisco Gurrutxaga, 1924). Aita Urdaneta etxe-multzoa (Txomin Unanue, 1947).
3. Tolosaldea:
    - Alegia: N-1 errepide berritik ez da apenas ikusten.
    - Tolosa: Erniozabal mendiaren (1.010 m) ekialdean eta Uzturre mendiaren (730 m) mendebaldean dago. Bidegurutze garrantzitsu batean zegoen (Irun-Madril Errege-bidea, eta Iruñera Lizartza eta Araitz-Betelutik zihoan bidea). 1256an hiribildu-titulua eman zion Gaztelako Alfontso X.ak. 1844-54 bitartean Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten. 1875ean Gipuzkoako industria-hiri nagusia zen. 1922an Laskuraingo zabalgunea egiten hasi zen, Gillen Eizagirre udal arkitektoaren plana jarraituz. Idiakez jauregia (XVII. mendekoa). *Euskal Herria* plaza neoklasikoa (Jose Eleuterio Eskoriatza eta Bixente Unanue, 1851). Zerkausia edo *tinglado*a (1898an eraikia; 1927an zabaldua). *Berdura* plaza (Jose Alejandro Mujika, 1899). *Tolosa* etxe-multzoa (Ramon Martiarena, 1955).
    - Villabona: Tolosa eta Andoain arteko bide erdialdean sortua.
4. Donostialdea:
    - Andoain (Donostialdeko Buruntzaldean): Izturitzaga dorretxea. Tourseko San Martin parrokia barrokoa (XVIII. mendekoa). Zumeako Santa Krutz baseliza. Plazaolako burdinola. Laborde Anaiak fabrika, 1928ko eraikin arrazionalista (Luis Tolosa eta Manuel Laborde).
    - Lasarte (Donostialdeko Buruntzaldean):
    - Usurbil: 1371n eman zion hiribildu-titulua Gaztelako Enrike II.ak.
5. Urola Kosta:
    - Orio: 1379an eman zion hiribildu-titulua Gaztelako Joanes I.ak. *Nueva Cerámica de Orio* fabrika (Ignazio Mendizabal, 1945).
    - Aia: Altxerri leizea. Paleolitoko labar-margoak.
    - Zarautz: 1237an hiribildu-titulua eman zion Gaztelako Fernando III.ak. 1865-84 bitartean, aldizka, Isabel II.ak uda bertan pasa zuen. Trena 1895ean ailegatu zen. Donostiaren orbitako udako hiri bihurtu zen, itsasalderako lehen linea partzelatzen joan zela. EAEko hondartza luzeena (2,8 km). Izaera defentsiboko Jasokundearen Andre Maria eliza (Santa Maria La Real), XVI. mendekoa. Narros jauregia. Dorre Luzea. *Vista Alegre* dorrea (Luis Peña, 1958).